



international declaration to
free arnaldo otegi
& to bring Basque political prisoners home

Brusela, 2015eko Martxoaren 24ean



international declaration to free arnaldo otegi & to bring Basque political prisoners home

ARNALDO OTEGI ASKATU; EUSKAL PRESOAK, ETXERA

Bost urte igaro dira, euskal mugimendu independentistak aurrekaririk gabeko eztabaida sakon bat ireki eta eskusiboki baketsuak eta demokratikoak diren bideen aldeko zalantzarik gabeko apostu sendoa egin zuenetik. Hala, autodeterminazioaren errespetuaren aldeko aldarrikapenean biolentziaren erabilerari muzin egin, eta hitzaren eta elkarrizketaren bidez, herrialdeak hamarkadetan zehar pairatu duen gatazka bortitza guztiz ixteko disposizio argia azaldu zuen.

2011ko urrian, Aieteko Nazioarteko Konferentziak (Donostia) egindako deiari, 50 urte baino gehiagoz luzatutako jarduera armatuari behin betiko amaiera ematea eta elkarrizketa prozesu bati hasiera emateari, ETAk erantzun positiboa eman zion.


Bake Nobel Sariduna den Desmond Tutuk Arnaldo Otegi, garaian Batasunako bozeramalea eta egun Sorturen Idazkari Nagusia dena, "bake prozesu honen lider" gisa nabarmendu zuen. Hain zuzen ere, Otegi izan zen indar independentista gatazka oro gainditzeko beharrezkoa zen eztabaidara bultzatu zuen zuzendari nabarmenetakoa. Eskusiboki baketsuak eta demokratikoak diren bideen aldeko apustu horri bere atxilotetarekin erantzun zitzaion 2009ko urrian. 6 urte eta erdirako kondenatu zuten Espainiako Gobernuak ilegalizatuta zuen Batasuna erakunde politikoko kide izateagatik.

Tamalez, ETArek jarduera armatuaren amaierak, armagabetzerako eta elkarrizketa eta alde guztietako biktimen mina onartuz adiskidetzerako agertutako disposizioak ez du berekin ekarri oraindik orain, Estatu espainiarraren aldetik inolako erantzun positiborik.

Arnaldo Otegi, zeinaren kasua Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren aurrean errekurritua izan den, Espainiako espetxe batean aurkitzen da, bere senide eta lagunengandik urrun. Hala daude, gatazkarekin lotutako ia beste 500 preso ere. Euskal Herritik urrun dauden espetxeetan dispertsatuak, inkomunikatuak sarritan. Horren euren senideentzako zigor gehigarri bat suposatzen duelarik, bisitatu ahal izateko distantzia luzeak egitera kondenatuak baitira.

Honen aurrean, bakearen eta demokraziaren alde arriskatzen jakin zuen gizonaren berehalako askatzea eskatzen dugu, inork egingo ez zuela zirudienean hitzaren aldeko apustua egin zuenarena. Bere askatzeak eta euskal presoek urrutizko politikaren amaiera, hauen aurretiazko kaleratzearen aurreko pausu gisa, beharrezko pausuak dira bake justu eta iraunkorra lortu ahal izateko.

Gizatasunagatik. Justiziagatik. Garaile eta garaiturik gabeko irtenbidean sinesten dugulako. Bakearen aldeko apustua egiten dugulako. Horregatik Arnaldo Otegiren askatzea eta presoek Euskal Herriratzea eskatzen dugu.



José "Pepe" Mujica, Montevideo, 1935.

Senataria eta Uruguayko Presindente ohia. Pepe Mujica MPPko eta Uruguayko Frenteko kidea da, MLN-T gerrila mugimenduko kide izan zen eta 13 urtez espetxeratuta egon zen, baldintza oso gogorretan.



Fernando Lugo, San Solano, 1951.

Senataria eta Paraguayko presidente ohia. Fernando Lugo gotzai katolikoa izan zen, eta egun laifikaturik dago. Kargutik kendu zuten estatu kolpetzat jo izan zen prozedura judizial baten ostean.



José Manuel Zelaya, Catacamas, 1952.

Hondurasko Presidentea 2006 eta 2009 urteen bitartean, 2009ko estatu kolpearen ostean kargugabetu zuten. Ertamerikako Parlamentuan (PARLACEN) ordezkari da egun.




Lucía Topolansky, Montevideo, 1944.

Senataria. Topolansky hainbat alditan jarduneko Presidentea izan da, Senatuko alderdi indartsuenaren buru izateagatik. MPPko eta Uruguayko Frenteko kidea da, MLN-Tko kide izan zen eta 12 urtez espetxeratuta egon zen. Montevideoko Udalerako alkategaia da, 2015eko maiatzean burutuko diren hautesundetan.



Archbishop Desmond Tutu, Klerksdorp, 1931.

Desmond Tutuk bortxarik gabeko erresistentzia aldarrikatu zuen apartheidaren erregimenaren aurka, eta herrialdearen aurkako boikot ekonomikoa defendatu zuen. 1980. urtean protesta batzuen ostean atxilotua izan eta epe laburrez izan zuten espetxean. Bake Nobel Saria eman zioten bere lanagatik. Nelson Mandela presidente zenaren Egia eta Berradiskitze Komisioko kidea izan zen.



Mairead Maguire, Belfast, 1944.

Maguire Women for Peace-en fundatzaileetako bat izan zen, ondoren Community for Peace Peoplen bilakatu zena. Iraldandako gatazkaren konponbide baketsua sustatzera bideratutako erakundea. Bake Nobel Saria eta Norbegiar Herriaren Bake Saria eman zitzaizkion, Carl Von Ossietzky eta Pacem in Terris sariekin batera.



Adolfo Perez Esquivel, Buenos Aires, 1931.

Perez Esquivel. "Servicio Paz y Justicia (SERPAJ)" en Idazkari Nagusia izan zen. 1977. urtean, argentinar ejertzitoak desagertarazi, espetxeratu eta torturatu egin zuen 14 hilabetez. Latinoamerikan Giza eskubideen eta benetako demokraziaren alde egindako lana gidatzeagatik Bake Nobel Saria eman zioten.



Ahmed Kathrada, Schweizer-Reneke, 1929.

Ahmed Mohamed Kathrada anti-apartheid mugimenduaren liderretako bat izan zen. Walter Sisulu y Nelson Mandelarekin batera, ia hiru hamarkada igaro zituen espetxean, gehientxuen Robben Islanden. Mandelaren askatasunaren aldeko kanpaina abiatu zuen. Parlamentari ohia, Mandela Presidentearen kontseilaria izan zen bere agintaldian.



Angela Davis, Birmingham, Alabama, 1944.

Angela Davis Kaliforniako unibertsidadeko, Santa Cruzeko, irakasle erretiratua da. EEBBtako Alderdi Komunistako aurpegi ezaguna eta Pantera Beltzen alderditik oso gertu egon zen. Alderdi komunistako izateagatik Ronald Reaganek Kaliforniako estatu edozein unibertsidadean klase ematea debekatzea eskatu zuen. Marineko Konderriko Epaitegian jasotako gertakarien harira kartzeleratu zutenean, "Free Angela Davis, Free all political prisoners" kanpaina abiatu zen.




Cuauhtémoc Cárdenas, Mexico City, 1934.

Cuauhtémoc Cárdenas Distrito Federaleko gobernuburu izan zen (demokratikoki hautaturiko lehena), Iraultza Demokratikoaren Alderdiaren fundatzaile, hirutan izan da hautagai presidentziala eta Internazional sozialistaren ohorezko presidentea da.



Gerry Adams, Belfast, 1948.

Sinn Féineko Presidentea eta Louth Konderriko parlamentaria. Ostiral Santuko akordioetarako Sinn Féi en negoziazioetarako taldeko kidea izan zen. Birritan pairatu du espetxea. Preso errepublikar ohia, 1972an internatu eta 1973an Long Keshen kartzeleratu zuten.



Leyla Zana, Silvan, Diyarbakır Province, 1961.

Lehenengo emakumea Turkiako Parlamentuko kide izaten. 10 urte espetxean igaro zituen. Rafto, Europar Parlamentuaren Sakharov eta Bruno Kreisky Sariak jaso zituen.



Leila Khaled, Haifa, 1944.

Palestinar Kontseilu Nazionalaeko eta Palestinaren Askapenerako Herri Fronteko (FPLP) kide da Leila Khaled. Palestinar Erresistentziaren itzal handiko ekintzailea. OLPren partaidea da eta egun Ammanen bizi da.



Ken Livingstone, Lambeth, London, 1945.

Parlamentuko kide ohi honek, Londresko Tokiko Gobernuaren baitan funtzio politiko garrantzitsuenak bete ditu bi alditan (Greater London Council-eko buru eta alkatea). Livingstonek bere babesa eskaini izan dio sistema errepublikanoari, LGTB kolektiboari eta Irlanda batuari, gerraren aurka agertzeaz gain.



Nora Morales de Cortiñas, Buenos Aires, 1930.

Nora Morales de Cortiñas “Madres de la Plaza de Mayo”ren fundatzaileetako bat eta “Madres de la Plaza de Mayo Linea Fundadora”ren presidentea da. Giza Eskubideen aldeko aktibista ezaguna da eta hala hainbat titulu Honoris Causa jaso ditu.



Rev. Harold Good, Derry, 1937.

Irlandako Eliza Metodistaren Presidentea da. Alec Reid apaizarekin batera armagabetzea ikuskatu zuten bi lekuko independienteetako bat izan zen. Irlandako iparraldeko bake prozesuan ezinbesteko ekarpena egin zuen.




Helmuth Markov, Leipzig, 1952.

Europar Parlamentuko kide ohia, Brandenburgoko Lehen Ministro ordea izateaz gain, Helmuth Markov Justizia eta Europako Ministroa eta Kontsumitzaileen Babeserakoa da.



Slavoj Žižek, Ljubljana, 1949.

Slavoj Ljubljana-ko Unibertsitateko Soziologia eta Filosofiarako ikerlaria da. Nueva Yorkeko Unibertsitateko Alemaniarako irakasle nabarmendua eta Humanitateen Birkbeck Institutuko Nazioarteko Zuzendaria.



Tariq Ali, Lahore, 1943.

Tariq Ali idazle eta zine zuzendaria da. Munduko historiaren eta politikaren inguruko liburu ugari idazteaz gain, nobelak eta antzerkirako nahiz zinemarako gidoieak idatzi ditu. New Left Reviewren editorea da, eta gaztarotik ekintzailea izan den hau, Oxford Unionekeo presidente izendatu zuten. Vietnaeko gerran izandako aurkako jarreragatik da ezaguna.



Pierre Galand, Uccle, Brussels, 1940.

Giza Eskubideen defendatzailea. Espetxeratze politikoen eta torturaren aurkako jarrera nabarmena izan du beti. Senadore ohia izateaz gain, Torturaren Aurkako Munduko Erakundearen (Europa), Belgikako Palestina eta Sahararekiko elkartasun elkarten zein forum Sud lehendakaria da. Honez gain beste hainbat elkarteko kidea da.



Gershon Baskin, גרשון בסקין, New York, 1956.

Gershon Palestina eta Israelen arteko gatazkara zuzendutako PCRIren fundatzaile eta kopresidentea da. Irlaerldar-Palestinar bakearen aldeko Paz Forum GKEeko eta One Voice mugimenduko zuzendaritzako kidea da. Histadrut Bake Saria eta Tributo de Honor y Coraje del World Movement for Democracy jaso ditu.




João Pedro Stédile, Lagoa Vermelha, 1953.

Lurrik Gabekoen Mugimenduko (MST) koordinatzaile nazionala da. Brasilen nekazaritza erreformaren defendatzaile sutsua da.



Carmen Lira, Mexico City, 1942.

Carmen Lira La Jornada Mexikar egunkariko zuzendaria da. UNAMeko irakaslea. Nikaraguan gerra korresponsal aritu zen eta Txinan eta Washington DCn nazioarteko korresponsal.



Fermin Muguruza, Irun, 1963.

Fermin Muguruza euskal kulturaren izen nabarmenetako bat da; musikari, abeslaria, konpositorea eta produktorea, azken urteetan dokumentalen munduan murgildu da.